

JOSE MARIA LIDON EPAILEARI OMENALDIA. ETAk iaz hildako epailearen aldeko ekitaldiak Madrilen eta Gasteizen arteko desadostasunak utzi ditu agerian beste behin ere. Espainiako Herri Defendatzaileak abertzaletasuna eta indarkeria lotu ditu.

Espainiako Herri Defendatzaileak abertzaletasuna eta indarkeria lotu ditu, Lidonen omenaldian

Ekitaldiak 400 bat epaile, fiskal, politikari eta kargu publiko bildu ditu Bilbon



ALFREDO ALDAI / EFE

Jose Maria Michavila ministroa, txaloka, eta Francisco Jose Hernando CGPJko lehendakaria, Lidonen alarguna besarkatzen, atzo, Bilbon.

nak izan ziren adierazpen gogorenak. Enrique Mujika Herzogek abertzaletasuna eta «terrorismoa» enbor bereko ezpalak bailiran lotu zituen entzuten zituen politikari, epaile eta kazetari andanaren aurrean. Bere hitzetan, «bizitza eta askatasunaren aurka indarra erabiltzen dutenak abertzaletasunaren aldeko aitzakiarekin, zuzenbidezko estatutik kanpo geratzen den botere borroka bat ezkutatzen ari dira». Mujika Herzogen irudiko, abertzaletasuna, oro har, «heriotzaz eta xantaiatz baliatzen da, izua zabaltzeko eta pizti odolzale batzuen gorrotoa gezurrekin elikatzen». Indarkeria zenbait bitarteko sozial eta politikotan «oinarritzen» dela erantsi zuen, eta herritarren eskubide eta askatasunak etengabe «urratzen» dituela.

Botere Judizialeko Kontseilu Nagusiko (CGPJ) presidentek ere abertzaleen aurka jo zuen, izenik aipatu ez arren. Francisco Jose Hernandok demokrazia eta «isuritako odolean sostengatzen diren mutazio politikoak» bateraezinak direla adierazi zuen. Zuzenbidea segurtasun indarren eta epaileen eginkizunari esker «gauzatzen» dela nabarmendu ondoren, CGPJko eledunak Lidonen lana hartu zuen gogoan, eta jakinarazi haren gorazarretan oroigarri bat jarriko dutela Bilboko Justizia jauregian.

Ibarretxe, elkarrizketa politikoaren alde

Ibarretxe EAeko lehendakariak «demokrazia eta askatasunaren aldeko» engaiamendua berretsi zuen hitzaldian zehar, eta «herri honetan pertsona bakar bat mehatxatuta dagoen bitartean atsedenek ez» duela hartuko adierazi zuen. Indarkeria desagertzea «elkarrizketa politiko» eta herri galdeketa bideetik etorriko dela gaineratu zuen. Ibarretxek euskaraz ekin zion mintzaldiari. Lehen hitzak aditu bezain pronto, Enrique Villar Espainiako Gobernu delegatuak EAEn aurikularrak kendu zituen mespretxuz, eta Mujika Herzogek ere desadostasuna agertu zuen, espantuka.

Jose Maria Michavila Justizia ministroak botere judizialaren eta epaileen betekizunak gorapatzeko erabili zuen bere hitzaldiaren mamia. «ETAren aurkako borrokan, zuzenbide estatua indartuta atera da gaurko ekitalditik», adierazi zuen. «Terrorismoaren aurkako borroka

EKITALDIA

Laurehun bat epaile eta politikari

ETAk duela urtebete hildako epailearen gorazarretan 400 bat epaile, magistratu, fiskal, abokatu, ordezkari politiko eta erakundeetako goi karguek bat egin zuten atzo Bilboko Euskalduna jauregian. Esan gabe doa, segurtasun neurriak itzelak eta zorrotzak izan zirela oso Euskaldunaren bazter guztietan eta ingurumarietan. Bizkaiko hiriburuan trafiko arazoak ohikoak baino latzagoak izan ziren, ekitaldiaren kariatz hainbat kale itxi egin zituztelako.

Eusko Jaurlaritzatik, Ibarretxe lehendakaria eta Azkarraga eta Balza Justizia eta Herrizaingo sailburuak nabarmendu ziren. Madriletik, berriz, Jose Maria Michavila Justizia ministroa eta Enrique Mujika Herzog Herri Defendatzaile

lea etorri ziren. Alderdien ordezkariak dagoenez, EAJtik Emilio Olabarria, PPTik Carmelo Barrio, PSE-EEtik Patxi Lopez, EAtik Rafa Larreina, eta EB-IUtik Antton Karrera.

Justizia erakundetako arduradun ugari ere topo egin zuten omenaldi ekitaldian: Manuel Jimenez de Parga Espainiako Auzitegi Konstituzionaleko presidentea, Francisco Hernando Botere Judizialeko Kontseilu Nagusiko (CGPJ) presidentea, Jesus Cardenal Espainiako fiskalburua, Manuel Maria Zorrila EAeko Justizia Auzitegi Goreneko presidentea eta Ruth Alonso Espetxe Zaintzako epailea, besteak beste. Europako Batasuneko 13 auzitegi goreneko presidentek ere bertaratu ziren.

CGPJko presidentek plaka bat eskaini zion Marisa Galarraga epailearen alargunari eta bere bi semeei, Jose Maria Lidonen «lanaren oroigarri». Halaber, Bilboko Justizia jauregian beste plaka bat jarriko dutela iragarri zuen.

Erredakzioa | BILBO

Jose Mari Lidon magistratuaren omenezko ekitaldiak Madrilgo eta Gasteizko gobernuetako goi kargu eta justizia erakundeko ordezkari ugari bildu zituen atzo goizean Bilboko Euskaldun. Juan Jose Ibarretxe Eusko Jaurlaritzako lehendakariak Jose Maria Michavila Justizia ministroa arte, guztiek bat egin zuten ETAk duela urtebete doi hildako epailearen lana azpimarratzerakoan, eta, bide-nabar, Justiziaren eta epaileen lana nabarmentzerakoan.

Aitzitik, diskurtso politikotik desadostasun nabariak eta zenbaitetan salaketa gogorrak izan ziren Gasteizko eta Madrilgo ordezkarien artean. Espainiako Herri Defendatzaileare-